# ONDORENGO JARDUERA: HONDAKINAK

HARTZAILEAK: DBH 1-2 mailak

DENBORA: 30 min.

HELBURUAK:

- Kontsumo ohiturak eta hondakinen ekoizpena erlazionatzea.
- Kontsumo arduratsuaren garrantziaz sentsibilizatzea.
- Natur baliabideak zaintzeko, bererabiltzearen eta birziklatzearen beharraz sentsibilizatzea.

EDUKIAK:

- Natur baliabideak zaintzearen garrantzia, sortzen dugun hondakin kopurua, erosketa arduratsuaren garrantzia, hondakinen murrizketa, berrerabilera, birziklatzea.

METODOLOGIA:

- Egunero erabiltzen ditugun produktuen zerrenda dute jarraian. Material hauen zikloa ikusi ahal izateko, taula osatuko dute.

# ONDORENGO JARDUERA: HONDAKINAK

| ONTZIA EDO BILDUKIA | ZEIN MATERIALEKIN DAGO EGINA? | NONDIK LORTZEN DA LEHENGAIA? | FABRIKAZIO PROZESUA: ONTZIRATZEA, BOTILARATZEA... | BERRERABILTZEN DA, BIRZIKLATZEN DA EDO DEGRADATZEN DA |
|---|---|---|---|---|
|  TETRABRIKA | | | | |
|  PLASTIKOA | | | | |
|  LATAK | | | | |
|  PAPERA / KARTOIA | | | | |
|  BEIRA | | | | |
| BESTEAK | | | | |

# ONDORENGO JARDUERA: HONDAKINAK

*Erabiltzen ditugun bildukiak, ontziak... egiteko naturatik lehengaiak hartzea ezinbestekoa da. Ondoren, hauek lantegietan eraldatzen dituzte produktu bihurtzeko. Gure ardura da erosketa arduratsua egin eta etxera ahalik eta bilduki gutxien eramatea. Etxera eramaten ditugunak sailkatu eta dagokion ontzira bota beharko genituzke. Ez badugu horrela egiten, hau da, sailkatzen ez baditugu, denak zabortegira doaz eta berriro produktuak egiteko naturatik lehengaiak hartu beharko dituzte. Honela, natur baliabideak pixkanaka agortu egingo ditugu.*

Banaka edo taldeka, paper batean idatziko dituzte beren "erosketa poltsan" ahalik eta bilduki edo ontzi gutxien egoteko oinarrizko irizpide batzuk. Ondoren, gelakide guztien artean 10 ideia onenak aukeratuko dituzte behin betiko dekalogoa osatzeko. Dekalogoarekin hormirudia egin dezakete gelan zintzilikatzeko. Ideia edo irizpide horiek aurrerantzean betetzen saiatuko dira. Irizpideak honelakoak izan daitezke: *Janariak erostean, ontzirik gabeak erosi (fruta, patatak, haragia...)...*